

**13/2021 TXOSTENA, AZAROAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOJKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.**

XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, ZEINAREN BIDEZ AUKERAK IZENEKO GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIAREN ANTOLAMENDU- ETA FUNTZIONAMENDU-ESTATUTUAK ONARTZEN DIREN.

I.- AURREKARIAK.

2021eko urriaren 5ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Aholkularitza Juridikoak AUKERAK Gizarteratzeko Euskal Agentziaren antolaketa- eta funtzionamendu-estatutuak onartzen dituen dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zaio.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG_DEC_10207/21_10).

II. – EDUKIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 18ko Aginduaren bidez hasiera ematen zaio AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentziaren estatutuak onartzeko legearen dekretua egiteko prozedurari.

Agindu horrek, besteak beste, hau ebazten du:

«(...) **Hirugarrena:** Prozedura premiazkoa dela deklaratzeari, Aukerak agentziaren estatutuak onartzeko dekretu hau onartzeko eta argitaratzeko izapideei ahalik eta azkarren ekiteko, espetxeetako lanaren eta enplegurako prestakuntzaren jarraipena distortsio handirik gabe bermatze aldera (...)».

Era berean, agindu horrek honako hau adierazten du xedapen-zatian, «Bidezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak» epigrafean:

«(...)Presako izapideak direnez, ez dira nahitaezkoak, lege-mailako araurik eskatzen ez duten txostenak direlako (kontsulta aukera-arrazoiengatik egitea baloratu badaiteke ere):

(...)

- *Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) 1 artikuluan esleitutako funtzioak betetzeko.*

- *Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 5.7 eta 61.2.c) artikuluetan esleitutako funtzioak betetzeko».*

Horren arabera, eta presako prozedura izan arren, bidezkotzat jo da orain egiten den txostena eskatzea, sektore publikoko kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten proiektuaren alderdien arabera mugatuta.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Estatutuen proiektuaren 5.1 artikulua xedatzen duenaren arabera, AUKERAK agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitarteko propio eta zerbitzu teknikotzat hartzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako moduan, eta zein erakunderetikoa den bitarteko propio eta zerbitzu teknikoa, horrekin egingo du bere jardueraren funtsezko zatia.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikulua 4. apartatuan (Sektore Publikoko Kontratuaren Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, SPKL), adierazten da pertsona juridikoen, zuzenbide publiko edo zuzenbide pribatukoek zer betekizun bete behar dituzten, bitarteko propio pertsonifikatutzat har daitezkeen elkarren independente diren bi botere adjudikatzaile edo gehiagorekiko:

«4. *Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:*



a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzailleek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean.

Baterako kontrol bat izateko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1. Mandatuaren hartzaile den entearen erabakitze-organoetan ordezkaritza izatea hari mandatuak eman ahal dizkioten ente guztiek; halakoetan, ordezkari bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahalko ditu.

2. Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den entearen helburu estrategikoei eta erabaki garrantzitsuei buruz.

3. Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkioten entearen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzeko diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuak jarduerari tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek honela kalkulatu dira: bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzailleek –edo botere adjudikatzaille horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluko honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

c) Artikulu honen 2. apartatuko c) eta d) letratan ezarritako baldintzak betetzea».

Bestalde, SPKLaren 32. artikuluko 2. apartatuko c) eta d) letrak honako hau xedatzen dute:

«c) Mandatuaren hartzailea pertsona juridiko eta pribatua bada, gainera, bere kapital edo ondare osoa titulartasun edo ekarpen publikokoa izan behar da.



d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berriaz aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sorrera-ekintzetan, mandatu emanen duen botere adjudikatzailerikiko jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:

1.a Zer botere adjudikatzailerikiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berriazko baimena.

2.a Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak beren xede sozialaren arabera betetzeko.

Mandatuaren hartzaile den enteen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailerikiko duen, eta eman ahal zaizkion mandatuaren araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzailerikiko deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatzailerikiko bakarra ere aurkezten ez denean, mandatu eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolana ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela».

SPKLaren 32.4.a) 1. artikuluan eskatutako betekizunari dagokionez, estatutuen proiektuak 14.1.c) artikuluan jasotzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak AUKERAKen Administrazio Kontseiluan parte hartzea. Hala ere, zehaztu beharra dago, aipamen horretaz gain, SPKLaren 34.2.d) 1. artikulua arabera, beharrezkoa izango dela erakunde horren berriazko adostasuna edo baimena.

SPKLaren 32.2 artikulua d) letraren azken-aurreko paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, honako eduki hauek daude Estatutuen proiektuaren 5. artikulua 3., 4. eta 5. apartatuetan:

«3.- Bere bitarteko propietzat eta zerbitzu teknikoetat dituen sailek edo erakundeek agindutako eta bere xedearekin eta helburuarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta jarduerak egitera behartuta dago AUKERAK agentzia, agintzen dituen sailak edo erakundeak alde bakarretik ezarritako jarraibideen arabera.

4.- AUKERAK agentziak bitarteko propio instrumental eta zerbitzu teknikoetat hartzen duten sail edo erakundeekin dituen harremanak instrumentalak dira, eta ez kontratuzkoak; barneko eta mendeko izaera dute, horrenbestez, ondorio guztietarako.



Agintzen dizkioten nahitaezko jarduerak, kasuen arabera, proiektuetan, memorieta edo bestelako dokumentu teknikoetan definituko dira, eta dagokien aurrekontuan baloratuko dira.

Mandatu egin aurretik, organo eskudunek agiri horiek onartuko dituzte, eta nahitaezko izapide teknikoak, juridikoak eta aurrekontukoak egingo dituzte, bai eta gastua kontrolatu eta onartzekoak ere.

5.- AUKERAK agentziak ezin izango du parte hartu bitarteko propietzat duten entitateek deitutako kontratuak adjudikatzeko prozeduretan. Hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez denean, sozietate horri agindu ahalko zaio lizitazio publikoaren gai den jarduera gauzatzeko».

SPKLaren 32.2 artikulua d) letraren azken paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, egiaztatu da, logikoa denez, AUKERAK agentzia ez dagoela sailkatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan. Agentzia hori sortzeko legea duela gutxi onartu da (3/2021 Legea, irailaren 30ekoa, Aukerak, Gizarteratzeko Euskal Agentzia, sortzekoa), eta, beraz, bultzatzen duen Sailak egiaztatu beharko du erakunde horrek giza baliabide eta bitarteko material egokiak dituela agintzen dizkioten lanak egiteko.

Horri dagokionez, Aukerak sortzeko Legeak honako hau aurreikusten du azken xedapenetako lehenengoan:

«(...) 2.- Agentziaren jarduerak hasi aurretik, haren estatutuak onartu beharko dira, gobernu-organokoak eratu, eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta ondasun eta baliabide materialak atxiki, bai eta Administrazio orokorreko sailen egitura organikoak egokitu ere, hala komeni bada (...)».

Ildo horretan, AUKERAKen estatutuen proiektuaren III. kapituluak Agentziaren egitura organikoa osatzen du, eta honako zuzendaritza-organoko hauek osatzen dute: Lehendakaritza, Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza.

Era berean, komeni da puntu honetan espedientean ageri den memoria ekonomikora jotzea, zeinak honako hau adierazten baitu II. atalean:

*«(...) Era berean, **Aukerak agentziaren langileen konfigurazioa** proiektatzen da, honako hauetan antolatuta: bi zuzendariordetza eta lau arlo bereizi (Enplegurako Ekoizpena, Prestakuntza eta Orientazioa; Administrazioa eta Zerbitzuak; Aholkularitza Juridikoa, eta Kontratazioa). Guztira, honako lanpostu hauek barne hartzen ditu: goi-kargu bat (Zuzendaritza), HAZko lanpostu bat eta 36 lanpostu gehiago; horietatik hamar Estatuko*



Administratziotik transferitutako pertsonak dira, ELEP Estatuko Administrazioaren erakunde publikokoak zehazki, zeinaren eginkizunak sortzen den erakunde berriak hartuko baititu EAEn (...)».

Baliabide materialei dagokienez ere, espedientean jasota dagoen memoria ekonomikoan adierazitakoari lotzen gatzaizkio. Memoria horretatik ondorioztatzen denez, gai horri 2022ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioek erantzungo diote (IV. atalean deskribatzen dira):

«(...) Proiektatzen den Gizarteratzeko Agentzia berriaren jarduerak ibilgetuaren inbertsioak eskatuko ditu erakunde berriaren egoitza izango den higieztina erosteko; izan ere, errentan hartutako espazioetan (Gasteizko Mintegia) jarduera hastea planteatzen bada ere, lokal bat erosi nahi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari atxikitako erakunde instituzionaletako bati, gutxi gorabehera 1.500.000 euro ordainduta, eta ustiatzeko gastuen lehen murrizketa bat ahalbidetuko du horrek.

Aplikazio informatikoei dagozkien ibilgetu ukiezinako inbertsioak egin beharko dira berehala, halaber.

Era berean, produkzio-jarduera garatzeko, inbertsioak egin beharko dira, batetik, produkzio-tailerren instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko eta, hala badagokio, ordeztzeko, gaur egun daudenak zaharkituta baitaude kasu askotan. Denboraren joanak eragindako zaharkitzeaz gain, eta aztertzen ari garen kasuan, beste pertsona askok ere erabiltzen dituzte instalazioak eta lanabesak, eta hondatu egiten dira horren ondorioz. Espetxeek zigorra betetzen duten pertsonen eman behar dizkieten funtsezko zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoa den produkzio-jarduera da, eta horregatik planteatzen da haiek hobetzea edo ordeztea; zerbitzu horiek ezabatzea, beraz, baztertu egiten da.

Bestalde, espetxeetatik eskala handiagoan ekoitzi eta merkaturatu daitezkeen produktu berriak garatzeko, Agentzia berriaren ekoizpen-instalazioetan inbertsioak ere egin beharko dira, ezartzen diren ekoizpen-lerro berrien arabera. Ezarpen horrek alde aurreko bideragarritasun-azterlanak beharko dituenek, ez da aurreikusten berehalako ordainketarik egingo denik lerro berri horiei dagokienez.

Halaber, Aukerak agentziaren jarduera hasteak ekipamendu informatikoan inbertsioak berehala egitea ekarriko du.

Ibilgetu materialeko inbertsioen urteko zenbatekoa Aukerak agentziaren zuzendaritza-organoak eratu ondoren onartzen diren urteko eta/edo urte anitzeko ekoizpen-, prestakuntza- eta enplegurako orientazio-planen arabera finkatuko da.



Nolanahi ere, inbertsio horiek kupoaren atxikipenetik datozen aurrekontu-baliabideetara egokitu ahal izango dira, eta, ezinbestean, egungo errendimendua hobetzea ekarriko dute (hala erakusten dute instalazio modernoagoak dituzten zentroek), bai eta instalazioak eta makinak konpontzeko ustiapen-gastuak murriztea ere.

Atal honetan ez dira kontuan hartzen espetxeetako prestakuntzarako eta enplegurako orientaziorako instalazioek beharko dituzten hobekuntzak egiteko inbertsioak; izan ere, inbertsio horiek espetxeetako ibilgetuaren parte dira, eta, ondorioz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuetan sartuko dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioak arautzen du bitarteko propioen eta zerbitzu teknikoen izaera aitortzea.

«60. artikulua.– *Organo eskuduna.*

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan, nahitaez bete beharreko enkarguen hartzaile izateko ezarrita dauden lege-baldintzak betetzen dituzten erakundeek aldeztatik eskuratu behar dute Administrazio Orokor edo Instituzionalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izatearen berariazko adierazpena, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez. Erabaki horretan zehaztuko da erakundeak zer saili atxikiko zaizkion horretarako. Adierazpen hori aurrez ezezta daiteke, Gobernu Kontseiluaren erabaki arrazoitu baten bidez.

61. artikulua.– *Prozedura.*

1.- Interesa duen sailak hasiko du prozedura, eta egokitzat hartutako txosten teknikoak, administratiboak, ekonomikoak eta juridikoak erantsiko dira espedientean. Hura izapidetzen den aldi berean izapidetu ahal izango da erakundea sortzeko beharrezko prozedura edo erakundearen estatutuak zein arauak aldatzeko prozedura.

2.- Nolanahi ere, espedientean dokumentu eta txosten hauek egon beharko dute:

a) Estatutuak, sortze-arauak eta, oro har, erakundearen jardura eta borondate propiorik eza (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende egoteagatik) agerrarazten duten antolaketa arloko dokumentuak. Erakundea sozietate bat bada, berariaz egiaztatu behar da kapital sozial osoa titulartasun publikokoa dela.

b) Aitorpena, egiaztatzen duena erakundearen ustiapen-sarrerak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeetakoak edo beste hirugarren



batekoak direla, betiere sarrera horiek administrazioak berak dagozkion eskumenak baliatuz hartutako erabakiek zuzenean eragindakoak badira. Aitorpen horrek oinarri erabiliko duen informazioa erakundearen urteko kontuen memorian adierazitakoa izango da.

Lehen adierazitako baldintza betetzen dela egiaztatzeko, aurkeztu ahal izango dira, modu subsidiarioan, erakundearen kapital- eta ustiaketa-aurrekontuak, behar bezala onartuak.

c) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak.

d) Erakundeak esleituta duen zeregina sektore publikoko kontratuei buruzko oinarrizko legediak azpikontrataziorako ezartzen duen edo dituen mugak gainditu behar izan gabe betetzeko erabiltzen dituen giza baliabideen, antolakuntza-baliabideen eta baliabide teknikoen egiaztatzea.

3.- Bitarteko propio edo zerbitzu tekniko izaera aitortzen duen Gobernu Kontseiluaren erabakia Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da, baita erakundea arautzen duen sortze-araudia edo estatutuak ere, eta enkarguek biltzen duten jarduera-eremua ere adieraziko da.

4.- Bitarteko propioetat edo zerbitzu teknikoetat hartutako erakundeek Gobernu Kontseiluari jakinarazi behar diote, atxikita dauden sailaren bidez, zer aldaketa izan diren deklaraziorako kontuan izandako inguruabarretan, aitorpena baliogabetu egin behar den edo mantentzeko daitezkeen ikusteko».

Aurretik esan bezala, zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko pertsona juridikoek, elkarren artean independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko, bete beharko dituzten baldintzen artean –SPKLaren 32. artikuluan 4. apartatuan azaltzen direnak– honako baldintza hau adierazten da b) letran:

«b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluko honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da».

Bestalde, SPKLaren 32. artikuluko 2. apartatuko b) letrak honako hau xedatzen du:

«(...) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozioen bolumen orokorraren batezbestekoa; botere



adjudikatzaileari emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitateri emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta; edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.

Mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo -aurreko paragrafoan ezarri bezala- jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatua ematen duen botere adjudikatzailearen sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatu direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiekzioen bitartez bereziki».

SPKLaren 32.2.b) artikuluan eskatzen den jarduera-baldintzaren kopurua kalkulatzeko, 2019ko martxoaren 22ko «Baterako zirkularra» eman da, Estatuko Abokatutza Orokorrarena-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administrazioako Esku-hartzailletza Nagusiaren Zuzendaritzarena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legean eskatzen den jarduera-baldintzaren kopurua kalkulatzeko irizpideei buruzkoa, bitarteko propietzat hartzen diren erakundeetan».

Zirkular horretan honako hau adierazten da: «[...] kontuan hartu behar den jarduera "botere adjudikatzaileak egindako adjudikazio baten arabera egiten dena izango dela, eta hori alde batera utzita jarduera hori nork ordaintzen duen, botere adjudikatzailea bera izan daiteke ordaintzen duena edota eskainitako zerbitzuen erabiltzailea (...)" bitarteko propioak berak egiten dituen jarduera guztiei dagokienez.

*Ildo horretan, bitarteko propioak aukeratutako adierazleak fidagarria eta arrazoizkoa, kuantifikagarria eta kontrastagarria izan behar du, eta, nolana ere, arrazoizkotasunaren balorazioan kontuan hartu beharko da **hautatutako adierazlea bitarteko propioak egindako jarduerarekin lotuta dagoela**, botere adjudikatzaileak emandako mandatuak baliatuz, edo mandatua egiten duen erakundeak modu berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek egindako mandatuekin, eta ez emaitzekin edo beste magnitude batekin. Horrez gain, bitarteko propioak funtzio publiko bat betetzeko egindako jardueraren tratamendua aipatu behar da. Batzuetan, bitarteko propioaren izaera funtzio edo jarduera publiko bat betetzen duten erakunde publikoetan gertatzen da, funtzio edo jarduera hori egitea izanik erakunde horiek sortzeko arrazoia (zerbitzuen deszentralizazio funtzionala), eta, aldi berean, esleitu zaien funtzio publiko horretan sartuta ez dauden jarduerak egiteko mandatuak jaso ditzakete. Jarduera nagusia ordenamendu juridikoak esleitutako funtzioak betetzea dakar, eta, beraz, ezin dira hirugarrenekin kontratatu modu orokorrean. Jarduera mota hori hainbat modutan finantza daitekeenez, negozio kopuru globalaren adierazlearen*



zenbaketari eragin liezaioke, baina, orokorrean, ulertuko da transferentzien bitartez jasotako diru sarrerak eta jarduera horretarako egindako gastuak zenbaketatik kanpo geratuko direla[...].».

Zirkularrean honako hau ere adierazten da: «[...] Kontu-auditoreek jarduera-baldintzaren egiaztapena eta proba erraztearren, ulertzen da negozioen kopuru globala kontzeptuari buruzko interpretazioak murriztailea izan behar duela, salbu eta kontrako proba badago, eta hori, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak adierazi duenez, jardueratik etekina lortuko duenak egiaztatu beharko du, hau da, bitarteko propioak.

Oro har, ez dira jarduera horretako zatitzat hartuko mandatu baten estaldurarik gabe egin direnak, eta justifikagarria izango da aldebakarreko ezarpenaren bitartez eta negozio juridiko honen ohar bereizgarriak izateagatik mandatu kontzeptuan sar daitezkeen kostuan oinarritutako konpentsazioarekin egin direnak. Beraz, adierazlearen zenbakitzailean jasotako mandatuei dagokien zenbatekoa sartu beharko da. Zenbakitzailean ez dira sartuko erakundeak ekitaldian lortutako ondare arloko emaitza ekonomikoa islatzen duen egoeran azaltzen diren magnitude hauek:

- a. Erakunde publikoari legez agindutako administrazio-ahal edo funtzio publiko bat betetzetik eratorritako diru sarrerak, arau juridikoak aplikatuzetik eratorritakoak barne. Azken kasu horretan, bitarteko propiorako derrigortasun-aldagaia eta tarifan egituraren oinarritutako mandatuaren konpentsazio-aldagaia badaude izan ezik.
- b. Tributu-izaerako diru sarrerak.
- c. Botere adjudikatzailearen jardueraren xedearekin lotutako diru-sarreraren partidak (kanpokoak edo ez).
- d. Transferentzia arruntak edo kapitalaren transferentziak erakundearen jarduera finantzatzeko, jardueraren instrumentazio juridikoa alde batera utzita, salbu eta egiazta badaiteke transferentziaren bitartez egindako finantzaketa horren zati bat botere adjudikatzailetik jasotako mandatuekin lotuta dagoela zuzenean.
- e. Diruz lagun daitezkeen jardueratik eratorritako diru sarrerak.

Halaber, ondoren aipatuko diren partidak negozio-bolumen globalaren zifratik kanpo utziko dira; izan ere, emaitzen kontua osatuko duten ondare arloko izaera ekonomikoko magnitudetzat hartuta, ez dute zuzeneko harremanik izango jarduerarekin agindutako mandatuak direla medio:

- a. Erakundeak bere ibilgetuarentzat egindako lanak.



- b. *Hornidura-soberakinak.*
- c. *Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitzak.*

Adierazlearen izendatzailean honako magnitude hauek sartu beharko dira:

- a. *Merkataritza-jardueraren salmentak eta bestelako sarrerak (erakundea irabazi-asmorik gabeko erakundeen kontabilitate-plana egokitzearen mende badago; negozio-zifra (erakundea kontabilitate-plan orokorraren mende badago) edo salmenta garbiak eta zerbitzu-prestazioak (erakundea kontabilitate publikoko plan orokorraren mende badago).*
- b. *Ustiapenerako dirulaguntzak.*
- c. *Erakundearen jarduerarekin zuzeneko harremana duten kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk [...]».*

Hala, espedientean (VII. atala) dagoen memoria ekonomikoarekin bat etorriz, «(...) *Aukerak agentziaren kasuan, 2022rako aurrekontu-proiektzioak 11.942.197,00 euroko ustiapeneko diru-sarrerak aurreikusten ditu guztira; horietatik 6.442.032,00 euro fakturatutako ekoizpen-jardueraren ondoriozko diru-sarrerei dagozkie, eta gainerako 5.500.000,00 euroak diruz lagundutako jarduerari.*

Era berean, salmenten zenbateko osoaren aurreikuspena (6.442.032,00 euro) honela banakatzen da:

- *Negozio-bolumenaren % 88,35 (5.692.000 euro) bitarteko propioaren izaera aitortzen zaien organo eta erakundeetatik jasotako mandatuen ondoriozko jarduerak ematen du. Zenbateko horretatik:*
 - *% 83,70 (5.692.000,00 euro) zuzenean ordaintzen du botere adjudikatzailerik gabeko agentziak (4.149.186,00 euro, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Sailak, eta 615.000,00 euro, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak).*
 - *% 16,30 (927.814,00 euro) ekonomatu-zerbitzuaren zuzeneko hartzaileen aldetik.*
- *% 11,65 (750.000,00 euro) kanpoko enpresei egindako salmentetatik dator».*

Transkribatutako aurrekontu-proiektzioan ikus daitekeenez, ustiapeneko diru-sarreren ia erdiak (% 46) diruz lagundutako jarduerari dagozkio, eta jarduera hori erakundearen funtzionamendua finantzatzera bideratuta egongo litzateke, nahiz eta memoria ekonomikoak halakorik zehazten ez duen. Ildo horretan, eta jada azaldu den bezala, aipatutako zirkularrak

zenbaketatik kanpo uzten ditu erakundearen jarduera finantzatzeko transferentzia arruntak edo kapital-transferentziak, orain axola duten ondorioetarako, salbu eta frogatu daitekeenean finantzaketa horren zati bat zuzenean lotuta dagoela botere adjudikatzaillearen enkarguekin.

Beraz, memoria ekonomikoa osatu beharko litzateke, azaldutako ildotik, espediente honetan SPKLaren 32.4.b) artikuluan aurreikusitako baldintza beteta dagoela ulertu ahal izateko, AUKERAK bitarteko propio pertsonifikatutzat jo ahal izateko.

Nolanahi ere, eta arestian esandakoari kalterik egin gabe, ohartarazten da, halaber, memoria ekonomikoan jasota dauden aurrekontu-proiektzioari buruzko zifra transkribatuetan akats aritmetikoak daudela, eta, beraz, berrikusi egin behar dela, zuzentzeko.

Beste alde batetik, Estatutuen proiektuaren 27. artikulua AUKERAK agenziaren kontratazio-araubidea arautzen du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta hura garatzeko arauetan kontratazio publikoaren arloan jasotako legeriarekin bat datozen aurreikuspenekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan xedatutakoarekin ere.

Aurreikusita dago, orobat, AUKERAK agenziak bere jarduera egokitu behar duela botere adjudikatzailleentzat ezarritako arauetara; izan ere, botere horiek administrazio publikotzat jotzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko araudiaren ondorioetarako. Bada, aurreikuspen hori bat dator Kontratazio Publikoaren Aholkularitza Batzorde honek martxoaren 12ko 3/2018 txostenean atera zituen ondorioekin. Hain zuzen ere, SPKLaren 3. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikulua aztertu ondoren egin zuen txosten hori batzorde honek, erakunde publiko enpresarialeki kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko araubideari dagokionez.

Gainera, irizpide hori errepikatu egin da Batzorde honek egindako beste txosten batzuetan, txosten honen xede bera duten arau-proiektuei dagokienez; esate baterako, 21/2019 Txostena, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrarena, zuzenbide pribatuko *Euskadiko Kirol Portuak* erakunde publikoaren estatutuak onartu eta haren jarduera hastea xedatzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa.

IV.- ONDORIOAK.



Laburbilduz, aztertzen ari garen dekretu-proiektuari dagokionez, ondoriozta daiteke espedienteari emandako informaziotik ezin dela ondorioztatu finantzaketa zuzenean lotuta dagoenik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik eta/edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotako enkarguekin; eta, beraz, ez da justifikatuta geratzen SPKLaren 32.2.b) artikuluan botere adjudikatzaille horien bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko eskatutako betekizuna AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentziak bete duenik. Hala ere, memoria ekonomikoa egingo balitz, erakundeak transferentzia arrunten edo kapital-transferentzien bidez jasotzen duen finantzaketaren zati bat edo guztia botere adjudikatzaillearen aldetik jasotako enkarguekin zuzenean lotuta dagoela zehaztuz, SPKLaren 32.2.b) artikuluko baldintza betetzen dela ondoriozta liteke, eta, horrela, aztertu beharreko estatutuak, bitarteko propio pertsonifikatuari dagokionez, legearen arabekoak izango lirateke.